

KONTZIENTZIAK PIZTEN

**IKASGELETAN LURRALDEAREN DEFENTSARI
BURUZKO HAUSNARKETA-PROZESUA**



SARRERA:

2022 eta 2023. urteetan, Lumaltik Herriak mahai inguruak burutu ditu EAEko 3 ikastetxetako irakasle eta ikasleekin: Eskurtze BHI Iralan (Bilbo), Mutriku BHI (Gipuzkoa) eta Egibide ikastetxean (Gasteiz). Ikasleen parte hartzea etengabeko hausnarketa prozesu baten ondorioz sortu da. Prozesu hori hainbat aktibista, lurraldearen defendatzaile eta komunikatzaile komunitarioekin lortu dugu.

Honako honetan, defendatzaile eta komunikatzaile komunitarioen bisitak Erdialdeko Amerikako hainbat testuinguru gertutik ezagutzeko aukera eman digu, bertako borroka lokaletan ikasleekin batera eztabaidatzeko eta, hala, Ipar-Hegoaren arteko giza eskubideen inguruan ematen diren ondorioak aztertzeko.

Gaur egun, Erdialdeko Amerikan giza eskubideak defendatzea jarduera arriskutsua bilakatu da. Errealitate hori, ikasleekin partekatutako hezkuntza kritikoaren prozesuaren parte da.

Bereziki, honako gai hauek landu dira: adierazpen askatasuna, komunikabide feminista eta komunitarioa Guatemalako Ruda.gt eta Jun Na'oj medioak adibidetzat hartuta, abortuaren despenalizazioa eta emakumeen eta pertsona disidenteen gorputzen gaineko erabakitzeeko eskubidea Honduraseko "Somos Muchas" plataformarekin, eta erresistentzian bizi diren komunitateekiko gure laguntza eta konpromizoa Txiapaseko Fray Bartolomé de las Giza Eskubide Zentroarekin batera.

Topaketa horien ondorioz, ikasleek berek egindako elkarriketak partekatzen ditugu.



PARTE-HARTZAILEAK:



Andrea Rosales, “**Somos Muchas**” plataformako kidea eta komunikazio ardura-duna da, Hondurasen abortua despenalizatzeko borrokan ari diren erakunde, kolektibo, sare eta feminista independentek osatutako plataforma nazionala.



Angie Ross, Komunikazio alternatiboaren defendatzailea da, Guatemalako Poptí herrikoa, adierazpen askatasunaren aldeko apustua egiten du eta kazetaritza feminista egiten du **Ruda.gt** medio independentean.



Angela Cuc kazetari eta komunikatzaile komunitarioa, lurraren defendatzailea, maia kaqchikel herrian du jatorria. **Jun Na'oj** (*Pentsamendu bat*) sarearen parte da, eta emakume indigenek komunikazio komunitarioan eta alternatiboan parte hartzea sustatzen du.



Rosy Rodríguez, **Txiapaseko Fray Bartolomé de las Casas Giza** Eskubideen zentroko taldeko kidea da. Herri eta pertsonen eskubideak sustatzen eta defendatzen lan egiten duen erakunde zibila da, komunitate eta erakundeen eskaerei erantzuna emanez.

IRALAKO ESKURTZE BHI, BILBO

2022ko urriaren 11a

Andrea Rosales, *Somos Muchas*,
Honduras.

Hezkuntza feminista jazo izan duzu txikitatik gurasoen aldetik, ala zuk zeuk hartutako erabakia izan da?

Nire familian ez zen inoiz politikaz, feminismoez, ekonomiaz edo holako gaietaz hitz egin. Are gehiago, gaia erabat saihesten zen. Giza Eskubideen Defentsarako eta feminismorako izan dudan edozein interesa nire jakin-minagatik eta Interneten denbora gehiegi pasatzeagatik sortu zen.

Nerabea nintzenean, "Tumblr" plataforma asko erabiltzen nuen, eta justizia sozialari buruz hitz egiten zuten espazioak gomendatzen zizkidan, baina, egia esanda, nirea bezalako herrialdeetan gertatzen den errealitatetik oso gertu ez zegoen ikuspegi batetik jorratzen ziren gai horiek. Beraz, lehen hurbilketa horiek kolpe bat izan ziren niretzat, ez baitzetoarren bat nire hurbileko errealitatearekin.



Hala ere, denborarekin gehiago hurbildu ahal izan nintzen tokiko lankide feministekin eta arrazializatutako Estatu Batuetako feministekin, bizi den errealitatea hurbilago azaltzen baitzuten.

Feminismoak edo holako espazio horiek ahalbidetu didaten gauza bat gai horiek nire familiarekin eztabaidatzea izan da, eta hobeto ulertzea zergatik hitz egiten duten nire familiako emakumeek gai jakin batzuei buruz edo ez. Zoritxarrez, badira abortua edo sexualitateez hitz egiteko tabu edo estigma batzuk oraindik ere, emakumeok bizi ditugun esperientzia oso gogorrak eta mingarriak dira, batere normalizatuak ez daudenak.

Orduan, espazio horiek izatea garrantzitsua da, zauriak sendatzeko ez ezik, zure familiarekin harreman hobea izateko eta ulertzeko ez direla beti gauza guztiekin ados egongo, beste garai batean bizi izan zirelako, pentsatzeko beste modu bat dute. Eta hori baliozkoa da, onartu egin behar da, betiere giza eskubideak urratzen ez badira.

Nire ustez, gure bizitzako punturen batean, emakume guztiok indarkeria matxista edo emakumeenganako irainezko komentarioren bat jasan dugu konturatu gabe. Zure ustez, horrelako ekintzak jasan behar dira ideal feminista horiek sortzeko?

Oso galdera ona. Egia esan, ez dut uste beharrezkoa denik, baina tamalez, kontuan hartu gabe, emakume askok pairatzen ditugu.

Hondurasen, lankide feministek hileroko buletinak kaleratzen dituzte, eta emakumeek urtebetetik 93 edo 98 urtera bitartean jasan dituztela antzeman dugu. Gure gizartean oso normalizatuta dago. Hala ere, ez dut uste feminismora hurbiltzeko egoera horietako bat jasan behar izan duzunik. Baina, tamalez, gertatzen da, eta uste dut maiz entzuten dela "emakume honek indarkeria jasan du eta orain feminista bilakatu da".

Era horretako zauriak ematen direnean, zergatik gertatzen ari den, zergatik ari zaidan niri gertatzen galdetzen diozu zeure buruari, eta honi azalpen bat ematen saiatzeko balio duten espazioen beharra aurkezten zaigu.

Askotan, sanazioaren bilaketa horretan, emakumeek espazio feminista horiekin topo egiten dute, eta, han, agian beraientzat ezagunak izan diren egoerak aurkezten dizkiete, bizi izan dituztenak, baina ez zituzten hitzak edo lexiko feminista ezagutzen.

Zure bizitzako eman zen inflexio-puntua zer egoera iruditzen zitzaizkizun ondo zeudela eta zeintzuk gaizki, edo zer unetan esan zenuen hori gaizki dago eta aldatu nahi dut?


Hondurasen krisi politikotik krisi ekonomikora igaro ginen, krisi sozialera, alegia. Inoiz ez da egon barealdirik 2009az geroztik, estatu kolpea izan genuenetik. Horrek, atzerapen izugarria ekarri zuen maila guztietan gure gizartean.

Unibertsitate publikoan egon nintzen lehenik, eta horrek institutuan bizi izan ez nituen errealitateak ezagutzeko aukera eman zidan. Hiriburukoak (*Tegucigalpa*) ez ziren pertsonak zeuden leku horietan egon ahal izateak, ikasketak egiteko joan-etorrian aritu behar zirenak eta aurrera egin nahi zutenak, bidegabekeria askoren berri izateko aukera eman zidan.

Nire lagun batzuk horretan murgilduta egon dira txikitatik, familiak militantzia oso luzea baitzuen mugimendu sozial edo ezkertiarreko espazioetan. Horrek lagundu zidan, asko ikasteko aukera izan nuelako beren esperientzietatik.

Zer dagoen ondo edo zer dagoen gaizki jakitea, uste dut hori ez dudala inoiz %100 argi izango, ez dut uste gauzak berez hain definitzeko errazak direnik, zuria ala beltza. Gris ñabardura bat ere badago, eta askotan ez diogu kasurik egiten, askoz errazagoa baita alde batean edo bestean kokatzea eta listo. Irakurtzeari esker hasi nintzen kontzientzia hartzen, bai eta elkartruke espazioetan jazotako esperientziei esker ere. Ezagutza espazio horiek, esan bezala, oso garrantzitsuak dira.

Denok gara emakumeak, bai, baina denok ez ditugu esperientzia berdinak, eta oso garrantzitsua da hori onartzea, posible izatea nahi dugun gizartea eraikitzen jarraitu ahal izateko.



2009an, larrialdietarako pilula antikonzeptiboa debekatzen duen Latinoamerikako herrialde bakarra Honduras izan zen. Zein izan zen zure erreakzioa eta iritzia horren inguruan?

2009an nik 13 urte nituen, beraz, oraindik ez zitzaidan horrelako ezer interesatzen. Hala ere, espazio horietan hasi eta horretaz ohartu nintzenean, gogorra izan zen, eta oraindik ere nahiko haserrea nago.

Hondurasen hiru orduro emakume batek sexu indarkeria salatzen du, eta sei emakumetik batek bakarrik salatzen duela esaten da. Hori gutxi ez balitz bezala, kasu horietan %90etik gorako inpunitate maila dago, eta egunero, bortxatu zituzten 14 urtetik beherako hiru neska ama dira. Errealitate oso gogorra da, erabat bidegabea, oso lazgarria.

Pilula debekatuta dagoenez, egoera askoz okerrago bihurtzen da, izan ere, esperientzia beldurgarri batengatik pasatu diren emakume hauek ez dute aukerarik haurdunaldi horrekin jarraitu nahi duten ala ez erabakitzeko.

Hondurasen ez ematen sexu hezkuntza integrala eskoletan. Gazteek jasotzen duten informazioaren zati handi bat, edo nik izan nuena bahintzat, ez zen izan modu seguruan, zientifikoan, sinesgarrian, kutsu erlijiosorik gabe, baizik eta entzuten zenuena lagunek hitz egiten zutena edo Interneten begiratzeko zenuena zen.

Orduan, larrialdiko pilula antikonzeptiboa debekatzeak argi erakusten du Estatuak ez duela inolako interesik izan sexu hezkuntza integralean, metodo antikonzeptiboetarako erabilerran eta sexu eta ugalketa eskubideen arazo nagusiei aurre egiteko. Horrez gain, Honduras nerabeen haurdunaldi tasa handiena duen Latinoamerikako bigarren herrialdea bilakatu da.

Angie Ross. Ruda, Guatemala.

Zure herrian gurea ez den beste hizkuntza bat hitz egiten da, maia hizkuntza bat. Azal dezakizu dituen berezitasunak?

Departamentu eta eskualde bakoitzean hizkuntza asko daude. Guztira 25 hizkuntza dira: 22 hizkuntza maia, xinka, garifuna eta gaztelania.

Oso zaila da "Poptí" hizkuntza hitz egitea, amak inoiz ez baitzidan irakatsi, amonak bere ama hizkuntzan bakarrik hitz egiten du, eta oso zaila da harekin komunikatzea. Asko erabiltzen da "K" soinua, hori egiteko unean eztarritik ateratzen da eta min egiten du, ahots-korden kontrol handia izan behar delako.

Arazoa da hizkuntzak galduz doazela, jendea hiriburura joaten delako eta hizkuntza aldatu behar duelako, bere ama hizkuntza alde batera utziz.



Zer inspiratu zintuen kazetaritzaren mundutik?

Nik egin nahi nituen lehenengo hiru karrerak Diseinu grafikoa, Zuzenbidea eta Komunikazio Zientziak ziren. Baina diseinu grafikoaren egoera oso prekariora da nire herrian, eta Zuzenbidea ere konplexuagoa da.

Izan ere, ustelkerian aritzen bazara ondo joango zaizu bizitzaz, baina Giza Eskubideak defendatzen badituzu, kriminalizatua izango zara eta erbestera eramane zaitzakete.


Komunikazio Zientzietan hastea erabaki nuen beraz, dinamikoa goa zelako eta 3 gauzak batera egiteko aukera eskaintzen zidalako. Kazetaritzan, bidegabekeriak salatzeke hitz egin eta diseinuak egin ditzakezu.



Zergatik erabaki zenuen kazetaritza feminismo eta adierazpen askatasunaren mesederako erabiltzea?

Laz hasi nintzen ikasten eta urte horretan bertan hasi nintzen lanean. Nik ez nekien ezer feminismoaz, ezjakintsua nintzen gai horretan eta adierazpen askatasunean. Hala ere, ez zen niretzak ezezaguna zen zerbait, nire baitan sufritzen nuen, eta beste alde batera begiratzea nahiago nuen, oso nekatua eta nekagarria baitzen pertsona bat adierazpen askatasuna gauzatzeagatik kartzelan sartu zutela ikustea, edo beste pertsona bat herrialdetik atera behar izatea bere herria defendatzeagatik.

Baina Rudan hasi nintzen lanean, eta haiek feminismo komunitarioa suposatzen zuen guztia erakutsi zidaten, biztanleen borroken atal garrantzitsua den adierazpen askatasunak, eta horrek arreta piztu zidan. Aita gizarte mugimenduetatik dator, azkenean herentzia hori jaso nuen txikitatik ere.



Etorkizunean, orain defendatzen dituzun gaiak defendatzen jarraitu nahi duzu?

Jakina, Guatemalan, tamalez, aurrera pausu bat eman eta 30 atzera egiten ditugu, guk askatasuna nahi dugu eta gure eskubideak aldarrikatu, batez ere emakumeenak. Hain matxista eta misoginoa den herrialde batean, emakumeok gara eskubide horien urraketak pairatzen ditugunak, eta batez ere emakume eta neska landatar eta indigenak.

Guk, komunikabide gisa, emakumeen borrokak lagundu nahi ditugu, haien borrokak adostu eta ikusaraztea.

Kazetaritzaz galdetu dizute, baina orain kazetari baten bizitza nolakoa den jakin nahiko genuke: nondik ateratzen diren artikuluetarako ideiak, nola hitz egiten den jendearekin bere iritzia ezagutzeko eta artikuluetan txertatzeko, etab. Azalduko al diguzu hori?

Kazetari izatea zaila da. Gobernuaren aldeko hedabide tradizioaletakoak bazara, ez dago arazorik eta soldata finkoa ere izango duzu.

Guk, komunikabide komunitarioen aldekoak garenok, hedabide ez tradizionalen aldekoak garenok alegia, kriminalizazio prozesu bat bizi dugu, Estatuari komeni ez zaizkion gaiak jorratzen ditugulako.

Ohar eta artikuluei dagokienez, garrantzitsua da pertsonekin lehen pertsonan hitz egitea haien iritzia jakiteko. Noski, artikulua edo gaiaren ideia zuk zeuk duzu bizi duzun gaurkotasunagatik, baina baita zure interesak direlako ere.

Adibidez, migrazioaren gaia asko interesatzen zait, eta zenbait galdera egiten dizkiot nire buruari. Bost galdera nagusiak dira: zer da migrazioa, zergatik egiten da, nola egiten da, noiz egiten da eta non egiten da. Horrek albiste hurbilagoak sortzera eramango nau, migratzeko eskubidearen ikuspegitik aztertuko dut, baina arrazoia nabarmenduz.



MUTRIKU BHI, GIPUZKOA

2022ko urriaren 14a

Angie Ross, *Ruda.gt.* Guatemala
Andrea Rosales, *Somos Muchas*,
Honduras.

Angie, **zaila izan zen Rudaren hasiera?**

Ruda 2017an hasi zen, Prentsa Komunitarioarekin eztabaidatu ondoren, gure anai arriben artean, hain zuzen. Emakumeen borrokak ikusarazteko medio bat sortu nahi genuen. Oso zaila da, matxismoari, patriarkatuari, misoginiari eta jazarpenari aurre egin behar baitiezu, are gehiago gure kasuan, emakumeon kasuan.

Batzuetan, gizonek eta pertsona kontserbadoreak irainak eta gauza itsusiak idazten dizkigute medio digitaletan. Beraz, zaila da, baina ez dugu horren aurrean erraz amore ematen duten horietakoak.



Angie, Rudaren sorrera Etxe Seguruaren agerpenarekin batera ematea kasualitatea izan zen?

Bai, egia da Rudaren hasiera markatu zuen zerbait izan zela. Guk alde horrekin hasi nahi genuen, dagoeneko bost urte dira emakumeak justiziarik jaso ez dutela, audientziak ematen ari dira bai, hor zeuden langileak justiziatik ihesi doazelako. Besteak beste, "Etxe Segurua", Rabinalen Achi emakumeen kasua eta SepurZarcorena ere, horiek une horretan kasu esanguratsuenak baitziren. Baina ohiko komunikabideek, beren istorioen protagonista bihurtu ordez, titular beldurgarriak erabiliz biktimizatzen zituzten.

Emakumeak seguru sentitzeko eta haien istorioak lasaitasunez kontatzeko espazio bat behar genuen, horren atzean mina eta familiarren galeren prozesu bat baitzegoen, denak hil baitziren. Kontua ez da min prozesu bat pasatzea soilik, dolua eta sanazioa ere bai, guretzat oso garrantzitsua baitzen, beste komunikabide batzuetan bakarrik biktimizatzen baita.

Andrea, zein izan da "Somos Muchas" sortu zenetik lortu den aurrerapenik esanguratsuenak?

Konstituzioaren kontrako-errekurtsoa zerbait historikoa izan zen mugimenduaren barnean. Horren aurretik, Estatuak ez zuen inoiz onartu abortua despenalizatzeko ematen ari ginen arrazoia nahikoa indartsuak zirela abortua estatu mailan eztabaidatzeko. Hori Gortean egitea jende hori legediatik iritzia ematen ari zirela lehenengo aldia zela adierazi nahi du, Kongresuan izan diren eztabaidak kongresu kideen iritzia pertsonaletatik haratago izan direlako.

Kriminalizatu diren 47 emakumeen kasua. Zenbaki hori txikia iruditu arren, tipifikazioa etengabe aldatzen zitzaien. Abortu egin zituztela esan beharrean, hilketa bat leporatu zaie. Datu horiek izateak asko laguntzen du, zeren eta, dagoeneko, herrialdearen errealitatea erakustez gain, ikerketaren atal hori lantzen jarrai baitezakezu, Estatuak ez baitu interesik izan abortuaren debekuaren eragina ezagutzeko.

Azkenik, abokatuek erakundee-tatik egiten duten lana oso ekar-pen garrantzitsua izan da, emakumeekin batera aritzen baitira lanean. Agian abortatu nahi ez zuten emakumeak, beren planen barruan ez segoe-na, edo euren buruak feminis-tatzat hartzen ez direnak, eta hori guztiz baliagarria da. Bene-tako akonpainamendua izatea garrantzitsua dela uste dut, justizia operadoreek ez baitakite zeintzuk diren beren eskubi-deak.

Andrea, **gertutik bizi izan duzu haurdun dagoen neska baten kasua?**

Ez, baina zenbakiak ezagutzen ditut. Adibidez, Hondurasen, egunero bortxaketa bat jasan zuten hamalau urtetik beherako hiru neska erditzen ari dira.

Angie, **zein izan da idaztea egokitu zaizun artikulurik gogorrena?**

Duela egun batzuk, Luz Mariaren (Ministerio Publikoko fiskala) hilketaren eman zen, eta senarrak berak erahil zuen.

Emakumea naiz, hogeitaz urte besterik ez ditut. Orduan, oso gogorra eta lazgarria izan zen entzule gisa egotea eta aldeek esaten zuten guztia xehetasunez entzutea.

Ez nuen albistea beste gainontzeko medio batzuk bezala idatzi nahi, eta oso nekagarria zen niretzat, etxera iristen nintzen eta idatzi ondoren negar egiten nuen, oso gogorra baitzen kasua.

Gizonekin egoteko edo hitz egiteko beldurra izan nuen, psikologikoa, terapiara joan behar izan nuen sentitzen nuena adierazteko. Baina bai, kasurik gogorrena lehenengo emakume hilketaren berri ematea izan zen, dudarik gabe.

Rudarekin harremanetan jarri al dira emakumeak laguntza bila aurtzen?

Bai, hasieran kostatu egin zen, baina pixkanaka-pixkanaka iristen hasi dira, esaten dizute: "laneko jazarpen kasu bat dut kontatzeko", "Unibertsitateko jazarpenari buruzko istorio bat dut", "etxeko indarkeria prozesu bat sufritu dut, baina salatze eta sendatzeko aukera izan dut".

Andrea, **itxaropena duzue zuen borrokak Honduraseko abortuaren egoera hobetuko duela?**


Azken finean, uste dut, horrela izan ezean ez ginatekeela hainbeste urte geroago egongo, eta gizartean ondorioak ikusteko denbora asko behar duela. Hondurasen emakumeen eskubideek atzera egin zuten 2009. urtean, estatu kolpe bat sufritu baikenuen.

Gero, 12-13 urte izan genituen narko diktadura baten menpean. Urte honen hasieran, orde, emakume batek hartu zuen lehendakari kargua. Lehen aldiz, eta bere gobernu planaren barruan, abortua hiru kausalengatik despenalizatzea eta larrialdiko pilula antikonzeptiboari debekua kentzea agertu zen.

Eta jada ez soilik bera bere irudi sinbolikoa, baizik eta gobernuaren baitan ere lankide feminista ditugu, eta horrek pentsarazten digu benetan aldaketak emango direla. Argi dago ez dela epe laburrean beteko den zerbait izango, tartean beste interes batzuk ere badaudelako.

Gureak ez ezik, Elizarenak ere bai esaterako, tamalez oraindik ere nahiko pisu, botere eta espazio baitu.

Hala ere, aipatu nizuen bezala, ez dut uste borroka horretan jarraituko genukeenik sinesten ez badugu, lehenik duina delako, emakume guztien bizitzaren eta osasunaren aldekoa delako, eta posible delako.



Zer helburu edo plan dituzue etorkizunean?

Angie:

Unibertsitea bukatzea espero dut lehenik eta behin, unibertsitean egotea langabezian egotea esan nahi du. Uste dut Euskal Herrian ikasi nahiko nukeela. Nire beste helburuetako bat feminismo komunitarioaren eta dekolonialtasunaren gaitan lan egitea da. Asko gustatzen zait ikerketaren gaia, batez ere Guatemalan, gauza asko baitaude kontatzeko oraindik.



Andrea:

Nire kasuan, graduatu nintzen, zientzia politikoetara bideratutako nazioarteko harremanak ikasi nituen. Gaur egun beste leku batzuetan ere aritu naiz aholkulari lanetan. Etorkizunera begira zer nahi dudan pentsatzen hasten banaiz, edo non ikusten dudan nire burua...

Egia esan, eta lankideekin egin dugun biran izan ditugun solasaldiak pixka bat gogoratuz, norbaitek adierazi zuen defendatzaile izateari utzi beharko duen eguna espero duela, egun horretan ez delako horretarako arrazoirik egongo, zentzuz.

Uste dut bat natorrela horrekin, Giza Eskubideen defendatzaile gisa aritzea oso gogorra eta nekagarria da, eta askotan lan asko egiten dugu kanporantz, eta barnerako oso gutxi egiten dugu.

Orduan, une horretan osasuntsu eta pozik egotea espero dut, borrokatzea borroka baita alegia. Orduan, oso landua den zerbait izanda ere, zoriontsu izan nahi dut.

EGIBIDE IKASTETXEA, GASTEIZ

2023ko maiatzaren 24a

Ángela Cuc, Jun Na'oj Sarea
Rosy Rodríguez, Fray Bartolomé
de las Casas Giza Eskubideen
Zentroa

**Zerk motibatu zizuen
mikrofona hartzeko eta
ahotsa altxatzeko?**

Ángela Cuc:


Uste dut inposizioaz kendu dizuten tresnak badaudela, eta gu kolonizazioa hitza kentzeko modu bortitz gisa antzematen dugu. Estatuak gaztelaniaz hitz egitera behartzen gaitu, hori izan da mikrofona hartzeko lehen motibazioa. Orduan, estatu arrazista bat dagoenean, komunikazioa emantzipatzeko tresna gisa ulertzen dugu, ez bakarrik sentimenduaz, baizik eta izateaz eta jarduteaz.

9 urte daramatzat irratian lanean. Mikrofona hartu nuenetik, amak beti esaten zidan pentsamendu bat nuen buruan, amari nire amonak esan ziona bera: "ahotsa dar-dar egin arren, esan egin behar da,



bestela ez baitituzte gure eskariak entzungo". Hori ere gure borrokak isilarazteko modu bat izango da, ez gaituelako berdin kolpatzen. Guztiak emakumeak izan arren, modu desberdinean kolpatzen gaitu emakume zuri, emakume mestizo, emakume beltz edota indigenei, ez baikara egoera eta testuinguru berberean bizi.

Hitza tresna politikoa da gure komunitateetako borroka sozial asko konpontzeko.



Zein da zuen helburua borroka honetan?

Ángela Cuc:

Helburuak anitzak dira. Nire irratia 56 urte ditu komunikazioaren bidez komunitatea egiten. Barne gatazka armatuaren egoerari aurre egin zion, eta kide asko erbestera joan behar izan ziren. Estatuaren aurkako komunikazioa egiten jarraituko zutela argi izan zuten. Horrek jazarpen eta hilketa ugari ekarri zituen FGEReko kideen aurka, Guatemalako Irrati Eskoletako Federazioaren aurka alegia.

Beti aritu gara komunikazioan eta aktibismoan, gizarte borrokei laguntza eskaintzen. 2017an, FGERek emakumeei zenbat parte hartze aktibo ematen ari zieten birplanteatu egin zuten, hau da, parte hartzea instrumentalizatzeraz



iritsi gara. Orduan, dualtasun politikaren aldeko apustua egiten dugu, genero politika deritzona. Orduan ohartzen gara emakume gehienak irratian daudela bai, baina ez direla komunikatzen ari, eta oso gutxitan lan teknikoa egiten dutela.

Hemen planteatzen dugu borroka ez dela soilik komunikazioa komunitarioa egitea, baizik eta emakumeen borrokak aldarrikatzea ere. Hor sortu zen Jun Na'oj Komunikatzaile Indigenen Sarea, emakumeek irratian aktiboki parte hartzeko apustu politikoa izan zen. Bertan emakume indigenak, xinkak eta garifunak daude.

Beste helburu nagusi bat da pentsamendu koloniala aldatzea da: emakume indigena guztiak emakume sufrituak edo haitzuloetan bizi garen emakumeak garela, eta ezin dezakegula eztabaida nazionalean parte hartu.

Gure pentsamenduak kritikoak dira, guk dugun mundu ikuskera errespetatzea nahi dugu eta, gainera, gure ezagutzak eta praktikak merkaturatu nahi duen Estatuari aurre egitea.

Zer ekarpen egin dakioke hemendik lurraldearen defentsaren borrokari?

Rosy Rodríguez:

Fray Bartolomé de las Casas Giza Eskubideen Zentrotik justizia bila joan gara komunitate indigenengana. Komunitate indigenak zapalduta bizi izan dira denbora luzez, komunitateak baztertu eta folklore gisa erabili dira orokorrean. Orduan, herri indigenek altxatu dute ahotsa, eta argi eta garbi oihukatu dute ez dugu instrumentalizatuak izaten jarraitu nahi!

- Fraybatik laguntza eta akonpainamendua eskaintzen dugu, eta haiekin batera justizia bilatzen dugu kasu eta prozesu desberdinetan. Behaketarako Brigada Zibilak izeneko proiektu bat dugu, 1995etik aurrera Giza Eskubideak urratzen dituzten komunitateei laguntzeko. Egun horietan gertatzen dena dokumentatzen dugu. Guretzat dokumentazioa oso lan garrantzitsua da, salatzen ari garenaren oinarria baita.

Bai, noski zerbait egin daitekeela hemendik bertatik. Behaketa Brigada Zibiletan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Txipasen, komunitate batean, 15 eguneko

egoteak dira eta bertan gertatzen dena dokumentatzen da, han gertatzen ari dena salatu dezaketenen parte izatea.

Zergatik uste duzue emakumeak direla lurraldearen defentsan gehien parte hartzen dutenak?

Ángela Cuc:

Gu bizi izan dugu testuinguru hori, emakumeak zaintza eta ugalketa lanera baztertuta egon dira historikoki, eta ezin gara estigma horietatik urrundu. Gure lankideak aliatuak izan edo sentsibilizatuta egon arren, hori egitea dagokizula normalizatu duzu, eta askotan "naturala" delako justifikatzen da. Orduan, gure hitza jartzea ez ezik, gure gorputza ere jartzea tokatzen zaigu.

Komunitatean geratzen garenak gara normalean. Gizonek, ama izatea tokatzen ez zaienez, ez dute hazi behar. Gainera, ez dute ugaltzeko aukerarik, eta, ondorioz, gizateria mantendu behar. Beraz, emigratu egin behar dute, eta lurraldean geratzen direnak emakumeak dira. Orduan, nire ardura komunitatea zaintzea da.

Hori dela eta, ez dute beren energia edo ezagutza bakarrik jartzen, euren gorputza ere jartzen dute, eta hor ere emakumeen aurkako erasoetan tratu bereziagoa izaten dute. Eraso fisikoa ez ezik, eraso psikologikoa ere bada. Emakumeak beti egon dira horretara baztertuta, etxea eta komunitate osoa zaintzeko ardura historikoa baitute.

Zure ustez, zer praktika betikotzen dute kolonialismoa gaur egun?

Ángela Cuc:

Asko daude, esate baterako, herri indigenetako emakumeok kontinente honetako emakumeok baino gutxiago dakigula pentsatzea. Oso pentsamendu kolonialista bilakatzen da, ez baitugu beste emakume batzuen narrazioak entzuteko aukerarik.

Irratian hamaika aldiz gertatu zaigu: jendea iristen denean, gure kabina arrautza-kartoiz estalita egotea espero dute, edo gure komunikazioa telefono mugikorrekin bakarrik egitea; baina Mac bat, kamerak eta abar erabiltzen ditugula konturatzen direnean, harritu egiten dira.

Orduan, badira esaten ez diren baina pentsatzen diren praktika kolonialistak, adibidez, ezin duzula gidatu edo irрати baten politika saila kudeatu, edo gu prozesuak zuzentzeko gai ez garela sinetsi. Ez dut esango Guatemalan dena erraza izan dela emakume indigenentzat, gure amonen borroka oso luzea izan baita.


Gu gara unibertsitalera joan gaitezkeen lehen belaunaldia, gure ama gehienek ez zuten hezkuntzarako aukerarik izan. Orain ama izan nahi dugun ala ez aukeratu dezakegu, kristautasunak ere influentzia handia izaten jarraitzen du.

Guatemala oso herrialde fundamentalista da, eta, orduan, erlijioa ere praktika kolonialen adibide bat da, egin behar dugunari edo egin behar ez dugunari asko eragiten diona, eta Elizak ez planifikatzera behartzen gaitue-nean antzematen dugu: Jainkoak nahi haina seme-alabak izan behar ditugulako, eta diakonoak edo katekistak, aldiz, bi ditu, horretarako aukera duelako eta unibertsitalera bidal ditzakeelako.

Beste logika batzuetatik, haur indigenen irudia zerbait erakar-garritzat saltzen da, erakuskete-tan emakume indigenen argaz-kiak ikusten ditugu.

Guatemalan ez dute inoiz haur europar bat ikusiko argazki erakusketa batean, haiek ez baitute penarik ematen, haiek ez dute tristurarik ematen, ez dute sentimendurik ematen.


Beti esaten dugu ez diogula belaunaldi honi errua botako guk bizi ez ginenean gertatu ziren gauzengatik, baina gure erantzukizunaren parte ere bada emakumeak beste herrialde batzuetan zer egiten ari diren ezagutzea.



Rosy Rodríguez:

Matxismoa oso errotua dugu esparru guztietan. Emakumeen aurkako indarkeria areagotu egiten da, emakumeak ere ahotsa hartzen doazen heinean.

Komunitate indigenetan praktika kolonialista horien aurka ere borrokatzen gara, lehen kide batek esan du "nik ez dut nire hizkuntzan hitz egiten, hitz egiten badut diskriminatua izango naizelako". Praktika horien aurka borrokatzeak ideia hori gutxitzera eraman du. Zorionez, gaur egun, komunitate indigenek gero eta gehiago aldarrikatzen dituzte beren eskubideak, kultura eta hizkuntzak.



Zer-nolako arazoak dituzue herritarrak kontzientziateko?

Ángela Cuc:

Belaunaldi gazte samarra gara komunikabideen arloan. Horregatik, gizarteari eta kolektiboetako dagozkien praktika asko normalizatu egin ditugu. Emakumeak guztiak poltsa berean sartu ezin ditzakegula esaten dugu beti. Izan ere, emakume feminista askok (*borroka horretan gaudenak*) ez dute arrazismoa gizartearen egiturazko arazo gisa identifikatzen, esaterako.

Kobertura mediatikoa ematera joaten garenean askotan gertatu zaigulako esaten dugu hori, eta askoz errazagoa da haiei pasatzen uztea edo prentsa tradizionalari bakarrik uztea. Orduan bai, guztiok borrokatzen gara patriarkatuaren aurka, baina guk bakarrik borrokatu behar dugu arrazismoaren aurka, ez gaituelako berdin kolpatzen.

Rosy Rodríguez:

Txiapasen, ia komunitate indigena guztietan oso ohikoa da emakumeek lurrerako eskubiderik ez izatea. Orduan, gizonek lurra izateko, lantzeko eta ekoizteko eskubidea dute.

Emakume bat, edozein egoera-rengatik bakarrik geratzen bada (*senarra emigratu eta seme-ala-bekin bakarrik geratu delako izan daiteke adibidez*) berea ez den lurra landuz, edozein unetan gera daiteke lur hori gabe.

Ez dago eskubiderik emakumea jabe izateko; gizonek bakarrik oinordetzan har ditzakete lurak, semeak, emakumeak joan eta gizon batekin ezkonduko direla aintzat hartzen baita.

Praktika horien aurka borrokatzea da dugun erronka nagusietako bat, emakumeek gizonek lurra izateko eta beren alabei oinordean uzteko eskubide bera izatea, eta haien alabek han bizitzeko eskubidea izatea, bai haiekin batera, bai bakarrik.

Nola piztu nahi dituzue kontzientziak?

Ángela Cuc:

Nik uste dut kontzientziak kolektiboak izan behar direla lehenik, eta gero banakako plano batera pasatzen da. Gure kontzientziaren parte bat irudimenetik edo pertsonen ditugun estereotipoetatik hasten da.

Garrantzitsua da gure kontzientzia itxaropenetik esnatzea. Zuek, orain, oso zeregin garrantzitsua duzue, zuen barnetik dagokizue zuen ikaskideekin hitz egitea, emakume indigenak teknologiatik, ezagutzatik, hitzetik, gure jakintzetatik, zuenaren parekoak izan daitezkeen praktika guztietatik jasaten ari garela. Gutxiago garela dioen imajinario hori aldatzea.

Samurtasunari esker aurre egiten dugun emakumeak gara, horrelako da gure bizimodua, maitasunetik bizi gara, maitasunik ez duen gorputz batek ezin baitu beste gorputz baten alde borrokatu. Horregatik behin eta berriz errepikatzen dugu ideia bera: “zu ni zara, eta ni zu naiz”.

Gu komunitateak gara. Nik zu zaintzen zaitut, zuk ni zaindu ninduzulako, eta gu biok, azken finean, komunitatea zaintzen dugu.

Rosy Rodríguez:

Errealitatea emakume, herri indigena, gizon... gisa ikustera gonbidatzea, errealitate hori aldatzeko, beste mundu posible bat izateko.

Zuek nahi duzuen eta etorkizunerako nahi duzuenaren arabera izango da. Mundu barneratzailea nahi dugu. Anai-arreba zapatistek esaten duten bezala "mundu asko batzen dituen mundua", edo mundu indibidualista nahi dugu? Niretzat bakarrik, ni neu naiz inportantea.

Zer eraiki nahi dugu etorkizunerako? Beste lurraldeetan gertatzen ari dena entzuteko interesa izateak beste era bateko kontzientziak sortzeko ahalmena piztuko du. Kontzientzia izatera gonbidatzea, gogoeta egitera, zuen lurraldetik zerbait hobea egitera eta mundu hobea egin dezakegun ikustera.

Zuen ustez, gizarte integratzaile gure alea jarri eta zuekin batera borrokatzen lagun genezake? Nola?

Ángela Cuc:

Ez dut nahi paternalismotik begiratzea, edo dena hemendik konpontzea espero izatea, baina sare sozialen bidez Guatemalako Gobernuari egiten zaion presio sozialarekin eta nazioarteko presioarekin zerbait lor daiteke, gutxi baldin bada ere, zerbait bada.

Emakume defendatzaileen kasuan asko gehiago nabaritu dugu egoera hori, adibidez, Guatemalako nikel enpresa baten kontra borrokan ari den lankide baten kasuan. Izabaleko El Estor eskualdean lur asko bereganatu dituen enpresa transnazionala da.

Gure kideak enpresa horren jazarpena eta kriminalizazioa jasan zituen, eta komunikatu bat kaleratu genuen, Guatemalako defendatzaileen sarean eta, ondoren, Erdialdeko Amerikako Defendatzaileen Sarearekin babesarekin batera, eta erakunde ezberdinak elkartu ziren. Handik eta hemendik egin zuten presio horrek lagundu egin zuen enpresaren jazarpen eta mehatxuak gutxitzeari.

Borrokekin bat egin behar dugu. Guztioi berdin kolpatzen ez bagaitu ere, enpatia senti dezakegu, gertatzen ari denaren kontra presio soziala eragiten dugulako.

Rosy Rodríguez:

Nazioartetik Mexikoko gobernuak Giza Eskubideak urratzen dituela esateak ez zaio batere gustatzen. Bertako biztanleei entzutea ez zaio axola, baina atzerritik baldin bada, zerbait konpontzeko asmoa erakusten du gutxienez. Orduan, nik uste dut baietz, zuek egin dezakezue arazoarekin bat egitean, eragin handia izan dezake.

Duela urte batzuk kasu bat izan genuen, Alberto Patishtan irakasle indigenarena hain zuzen, zazpi polizia “bera bakarrik” hil izanaz akusatua. Kartzelan sartu zuten, eta urte batzuk eman zituen han, epaitu egin zuten eta jada ez zegoen atera bueltatzeko modurik, bere baliabide juridiko guztiak agortu zirelako.

Orduan, bere askatasunaren aldeko kanpaina bat egin genuen, munduko hainbat tokitatik mugitu zena, “Alberto Askatu” mezuarekin argazki bat bidaltzen zuten, eta salbatu zezakeen gauza bakarra presi-

dentearen indultua zen. Azkenean indultua ematea lortu zen. Orduan, herrien arteko elkartzunak, hainbat bidegabekeriengatik elkartzea eta anaitasunak, gauzak aldatzea lor dezake. Bidegabekeriei aurre egiteko elkartzea oso positiboa izan daiteke.



Diseinu gráficoa:

Karin Hernández

Argazkiak:

Lumaltik Herriak y Ecuador Etxea

Koordinazioa: Lumaltik Herriak

(Idily Mérida. Juana Canga. Cristina Plaza)

